

**ALBERTO ANDEREZEn DIMISIOA**

Alberto Anderezen eskutik (Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusia), negoziazio eredu berri bat iritsi zaigu Administrazioaren ustezko “modernizazio” baten izenean. Honek ezkututzen duen bakarra zera da, txandako Gobernua ,bere gustura maneiatu ahal izateko feudo bat ematen zaion “enpresari” batean bihurtzen duen eredu neoliberal bat.

Helburu hau aurrera eramen ahal izateko, Administrazioak azken bi akordioetarako negoziaketak mehatxu berberarekin has ditu, hau da, ustezko “modernizazio” horren izenean, lan eskubideen esparruan amore ematen ez bada, ez dela KPIaren igoera erreala ere kontutan hartuko. Modu honetan, jada finkaturiko lorpen sindikal bat, akordioaren sinadurarako eskari nagusi bihurtuz. Hau guztia, jarrera oldarkorraz eta langileen aldarrikapenei mesprezuz eginaz.

Urtetan zehar Administrazioiko langileok burutzen daramagun kalitatezko lana mesprezatu nahian dabilta, bere lanpostuarekin konpromisorik ez duen funtzionarioaren irudi estereotipatu bat eskainiz. Gu ez gara joko honetan murgilduko, baina UPN-CDNk egiten duen gobernuaren kudeaketa salatu nahi dugu, zeinak zerbitzu publikoetarako inbertsioak gutxituz, aitzakiak bilatzen dituzten, euren poltsikoak beteko dituzten pribatizatzeak bultzatzeko; langileen kaleratuz (Nafarroako Ospitalean bezala) edota informatikariak presionatu eta jazarriz.

LABetik kalitatezko zerbitzu publiko bat aldarrikatzen dugu eta bidegabekeria historikoak konpondu behar direla nabarmendun ahi dugu.

Administrazioaren modernizazioa, langileok egin dugu bideragarri, formazioa zeta garai berrietara moldatuaz. Askotan, instituzioaren laguntzarik gabe, eta noski konpentsaziorik gabe. Honen ondorio gisa, bada hainbat kolektibo, beraienak baino kategoria handiago batzuetan lanean dihardutenak eta oraindik beraien aldarrikapenak onartuak izan ez dituztenak.

Ez dugu ahanzi behar zer nolako bidegabekeria suposatzen duen langile kontratatuentzat laguntza familiarra zein antzinatasuna ez kobratzeak, hala nola, Administrazioiko gainerako langileak ezintasun eta heriotzaren aurrean babesten dituzten aseguruetan lekurik ez izatea.

Ez dugu uste, lekuz kanpoko zerbait denik, enpresa pribatuan bezala, alde zuzeneko erretiro sistema bat arautzeko eskatzea, Gizarte Segurantzapean gauden Foru Administrazioiko langileria guztiarentzat, hauek ez baitira besteen kontura diharduten langiletzat hartzen.



## Nafarroa

Ezin dugu ahaztu, lan postuetako arriskuak desagerraraziko dituen eta gure osasunarengan eragingo duten jarduera osasungarriak bultzatuko dituen lan osasunerako politika baten garapenaren garrantzia.

Atzera ezina iruditzen zaigu, egungo Gobernuak euskarari Foru Administrazioan jarri dizkion traba eta oztopo guztiak bertan behera uztea. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren orain arteko politika bakarra euskarari traba eta oztopoak jartzen dizkiona izan da: Administrazioan euskararen erabilera arautzeko Dekretua, langile euskaldunen diskriminazioa, elebakarrak balira bezala, ...

Negoiazio prozesua hasi aurretik, LABentzat oinarrizkoak diren bost ardatz hauek aurkezteko asmoz prentsaurreko bat burutu genuen. Negoiazioaren momentu honetan, oraindik puntu hauetako bakar bat ere ez da landu. Beraz, arazo hauek konpondu gabe, ezin dira ordainsarien inguruko kontzeptu berriak planteatu.

Uste dugu, egoera honen erruduna UPN-CDNren Gobernu dela, eta bereak izendatu duen negoziazio taldearena, Alberto Anderez (Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusia) buru duela. Anderez jaunak, Osasunbideako bere aurreko karguan, %43ra igo zuen behin-behineko kontratazioa, UPN-CDN Nafarroako ABLErik handiena bihurtuz, eta Osasungintzako Mahai Orokorreko sindikatuekin akordioetara iristeko gaitasunik gabe.

Ez da posible gobernuak negoziatzaile itxura ematen duen bitartean, egoera honen erantzuleak mantentzea. Horrexegatik, Alberto Anderezen kargu-uztea eskatzen dugu bere Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusitik eta Mahai Orokorreko negoziazio taldeko arduratik.

Foru administrazioko langileria guztiari eta or-har jende guztiari dei egiten diogu, **Martxoaren 10ean Diputazio Jauregiaren aurrean (Karlos III) 13:30etatik 14etara** burutuko dugun **elkarretaratzera** biltzeko. Honela, langileen eskubideen, zein hiritarrek, kalitatezko zerbitzu publiko bat izateko duten eskubidearen berrero den Administrazioaren egungo politika salatzen.